A tales efectos se aportará un certificado de la empresa en que conste tanto el número global de personas trabajadoras de plantilla como el número particular de personas trabajadoras con discapacidad, o en el caso de haberse optado por el cumplimiento de las medidas alternativas legalmente previstas, una copia de la declaración de excepcionalidad y una declaración del licitador con las concretas medidas a tal efecto aplicadas.

e) Behin betiko bermea egiaztatzea.

Obra honen izaera berezia dela eta, obrak ondo egikaritzeko eta kontratistak dagozkion kontratu betebehar guztiak zorrotz betetzea bermatzeko, berme osagarria ezartzen da, hain zuzen, lizitatzailearen eskainitako azken prezioaren % 5, SPKLren 107.2 artikulua aplikatuta; hortaz, berme osoa eskaintza onena aurkezten duen lizitatzaileak

e) Acreditación de la garantía definitiva

Dado el carácter excepcional de la presente obra, para responder de la buena ejecución de éstas y del estricto cumplimiento de todas las obligaciones contractuales del contratista, se establece una garantía complementaria de un 5% del precio final ofertado por el licitador en aplicación del artículo 107.2 de la LCSP,

ESKU11bac3dc-cc8f-4df1-8430-705b246c67db

eskainitako azken prezioaren % 10 izatera iritsiko da (BEZa kanpo).

alcanzando la garantía total el 10% del precio final ofertado por el licitador que presente la mejor oferta, excluído el IVA.

Behin betiko bermea SPKLk 108. artikuluan xedatutako edozein modu erabiliz osa daiteke, HAKLEOk 55. artikuluan eta hurrengoetan xedatzen dituen baldintzekin.

La garantía definitiva, podrá constituirse en cualquiera de las formas establecidas en el artículo 108 de la LCSP, con los requisitos establecidos en el artículo 55 y siguientes del RGLCAP.

Kontratistak, eska dakizkiokeen kalte-ordainak edo isunak berme horren bitartez ordaintzen badira, bermea berriz jarri edo handitu beharko du, dagokion heinean; kalte-ordainak edo isunak ordaintzen direnetik egutegiko hamabost egun izango ditu horretarako, eta hala ez egitea kontratua suntsiarazteko kausa izango da.

En caso de que se hagan efectivas sobre esta garantía las penalidades o indemnizaciones exigibles a la contratista, esta deberá reponer o ampliar en la cuantía que corresponda en el plazo de quince días naturales desde la ejecución, incurriendo en caso contrario en causa de resolución.

Kontratua aldatu delako kontratuaren prezioa ere aldatu egiten bada, bermea egokitu egin beharko da, kontratua aldatzeko erabakia adjudikaziodunari jakinarazi zaion egunetik kontatzen hasi eta egutegiko hamabost eguneko epean, aldatutako prezio berriarekin dagokion proportzioari eusteko.

Cuando como consecuencia de una modificación del contrato experimente variación su precio, deberá reajustarse la garantía en el plazo de quince días naturales contados desde la fecha en que se notifique a la adjudicataria el acuerdo de modificación, para que guarde la debida proporción con el nuevo precio modificado.

Behin betiko bermeak SPKLk 110. artikuluan aipatzen dituen kontzeptuei erantzungo die.

La garantía definitiva responderá de los conceptos mencionados en el artículo 110 de la LCSP.

Aldi baterako enpresa-elkarteen kasuan, elkartekideen izen sozialak eta IFZ zenbakiak adierazi beharko dira. Era berean, bermeak elkartea osatzen duen enpresa batek (edo batzuek) eratu ahal izango ditu(zte), baldin eta eskatutako zenbateko osoa lortzen bada eta berme solidarioa ematen bazaie aldi baterako enpresa-elkartea osatzen duten guztiei.

En el caso de las uniones temporales de empresas deberán especificarse las razones sociales y NIF de las empresas participantes. Así mismo, las garantías podrán constituirse por una o varias de las empresas participantes, siempre que en conjunto se alcance la cuantía requerida y garantice solidariamente a todas las integrantes de la unión temporal.

f) Espainiakoak ez diren enpresek, gainera, 4. eranskineko dokumentazioa erantsiko dute.

f) Las empresas no españolas, deberán, además, aportar la documentación del anexo 4.

g) Aseguruak

g) Seguros

Erantzukizun zibilaren asegurua (ingurumen kalteak barne) kontratatu beharko da eta zenbatekoa 2.000.000 eurokoa edo hortik gorakoa izango da. Izan ere, kontratuaren xede den jardueraren ondorioz hirugarren pertsonei edo ondasunei eragin diezazkiekeen kalteen inguruan kalte-ordainaren arriskua estaliko du, asaldatutako ingurunea konpondu eta berreskuratzeko

Sedeberá contratar un **seguro de responsabilidad civil** por importe igual o superior a 2.000.000 €, que cubrirá el riesgo de indemnización por los posibles daños causados a terceras personas o a sus bienes y los costes de reparación y recuperación del medio alterado, derivados de la actividad objeto del concurso.

ESKU11bac3dc-cc8f-4df1-8430-705b246c67db

kostuekin batera.

San Marko mankomunitatea aseguratu gehigarri gisa agertu beharko da, hirugarren izaera galdu gabe.

La mancomunidad de San Marcos deberá figurar como asegurado adicional sin perder su condición de tercero.

Gainera, **eraikuntzan arrisku orotako aseguru bat** kontratatu beharko du, adjudikazio zenbateko osoari dagokion estaldurarekin (BEZa barne). Proiektuaren aldaketek kontratuaren zenbatekoa aldatzea eragiten dutenean, bermatutako kapitala proportzio berean aldatuko da.

Además deberá contratar un **seguro de todo riesgo de construcción** por el importe total de adjudicación (IVA incluido). Cuando las modificaciones de proyecto provoquen variación en el contrato, el capital garantizado se modificará en la misma proporción.

San Marko Mankomunitateari kontratatutako aseguruei buruzko baldintza orokorren, berezien eta espezifikoen kopiak bidaliko zaizkio, betiere kontratua gauzatzen hasi baino lehen.

Sedeberá remitir a la mancomunidad de San Marcos, copias de las condiciones generales, particulares y específicas que configuran los seguros contratados, siempre antes del inicio de la ejecución del contrato.

Horrez gain, polizen ordainagiriak aurkeztuko dira. Urtero San Markoko Mankomunitateari aseguruak eguneratuak daudela egiaztatzen dituen dokumentuak bidaliko zaizkio eta, gainera, aseguruen baldintza orokorretan, berezietan eta espezifikoetan edozein aldaketa badago, Mankomunitatea bera jakinaren gainean egongo da.

Junto a ello, deberá presentarse acreditación de haber abonado las citadas pólizas. Anualmente deberá remitir a la mancomunidad de San Marcos el documento acreditativo de la actualización de los seguros, así como comunicar a la mancomunidad cualquier variación que se produzca en las condiciones generales, particulares y específicas que configuran los seguros.

Azkenik, gainerako aseguru guztiak indarrean izango dituzte eta eskatuz gero, Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoei emango dizkiete.

Deberán, además, tener todos los demás seguros en vigor y facilitarlos al servicio técnico de la mancomunidad en caso de requerirlos.

h) Emakumeen eta gizonen **berdintasunerako plan bat** baduela egiaztatzen duen agiria aurkeztea, 2007ko martxoaren 22ko 3/2007ko Lege Organikoarenaren 45. artikuluarekin bat, enpresak 50 langile baino gehiago dituenean.

h) La presentación de la documentación justificativa debe contar con un **plan de igualdad** en aplicación de lo dispuesto en el artículo 45 de la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres, cuando se trate de empresas de más de 50 trabajadores o trabajadoras.

12.2 Ziurtagiriak bitarteko elektronikoak, informatikoak edo telematikoak erabiliz egin daitezke.

12.2 Los correspondientes certificados podrán ser expedidos por medios electrónicos, informáticos o telemáticos.

12.3 Aipatu epean errekerimendua behar bezala betetzen ez bada, enpresa eskaintzaileak eskaintza erretiratu duela ulertuko da eta, halakoetan, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo eskaintzaileari, eskaintzak sailkatu diren ordena kontuan hartuta, eta Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren (BEZik gabe) ehuneko 3ko

12.3 De no cumplimentarse adecuadamente el requerimiento en el plazo señalado, se entenderá que la empresa licitadora ha retirado su oferta, procediéndose en ese caso a recabar la misma documentación a la licitadora siguiente, por el orden en que hayan quedado clasificadas las ofertas, procediéndose a exigirle el importe del 3

ESKU11bac3dc-cc8f-4df1-8430-705b246c67db

zenbatekoa eskatuko zaio lehenengoari, zigor gisa.

por ciento del presupuesto base de licitación, IVA excluido, a la primera, en concepto de penalidad.

12.4. Enpresa Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dagoenean edo Europar Batasuneko estatu kide bateko datu base nazional batean agertzen denean, enpresaren espediente birtual moduan, dokumentuak elektronikoki biltegiratzeko sistema baten moduan edo aurrekalifikazio sistema baten moduan, eta organo horiek haietan doan sartu daitezkeenean, enpresak ez du aurkeztu beharko toki horietan inskribatutako datuak egiaztatzen dituzten dokumentuak edo bestelako froga dokumentala. Izan ere, lizitatzaileak bakarrik adierazi beharko du, espresuki, dena delako erregistroan edo datu basean inskribatuta dagoela.

12.4. Cuando la empresa esté inscrita en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público o figure en una base de datos nacional de un Estado miembro de la Unión Europea, como un expediente virtual de la empresa, un sistema de almacenamiento electrónico de documentos o un sistema de precalificación, y éstos sean accesibles de modo gratuito para los citados órganos, no estará obligada a presentar los documentos justificativos u otra prueba documental de los datos inscritos en los referidos lugares, siendo únicamente necesario la manifestación expresa por parte de la licitadora de su inscripción en el Registro o base de datos correspondiente.

12.5. Era berean, lizitatzaileak aurreko puntuko dokumenturen bat aurrez aurkeztu izan balu, justifikatu ahalko du Mankomunitatean baduela agiria, azalduz ze prozeduretan aurkeztu zuen, eta adierazpena eginez, ez dela egoera aldatu.

12.5. Asimismo si la empresa ya hubiera aportado alguna documentación exigida en el punto anterior, podrá justificar que la Mancomunidad dispone de esa documentación, indicando el procedimiento donde se encuentre, y declarará no haberse variado las condiciones de la misma.

13. KONTRATUA ESLEITZEA

13.1. Administrazioak ausaz esleipen irizpideekin bat kontratua eskaintzarik onenari esleitzeko ahalmena ala agirietan agertzen diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenik ez badago, lizitazioa hutsik aitortzeko gaitasuna du.

13. ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO

13.1. La Administración tendrá alternativamente la facultad de adjudicar el contrato a la mejor oferta de conformidad con los criterios de adjudicación o declarar desierta la licitación, cuando no exista oferta o proposición alguna que sea admisible de acuerdo con los criterios que figuren en los pliegos.

13.2. Hala eta guztiz ere, SPKLk 152. artikuluan aurreikusitako baldintzetan, administrazioak, kontratua formalizatu baino lehen, interes publikoko arrazoiak direla-eta, esleitzeari uko egin diezaioke edo izapidetutako prozedura bertan behera utz dezake, akats konponezinak dituenean. Nolanahi ere, bi kasuetan enpresa eskaintzaileei ordaindu beharko zaie. Mankomunitateak uko egin edo atzera egiten badu, gehienez ere, sorturiko gastuengatik 1.000 eurotan konpentsatuko da.

13.2. No obstante, en los términos previstos en el artículo 152 de la LCSP, la Administración, antes de formalización del contrato, podrá renunciar a adjudicarlo por razones de interés público, o desistir del procedimiento tramitado, cuando éste adolezca de defectos no subsanables, debiendo compensar a las empresas licitadoras en ambos casos. En caso de renuncia o desistimiento de la adjudicación por parte de la mancomunidad se compensarán los gastos en que hubiesen incurrido con un máximo de 1.000€.

13.3. Berdinketa ebazteko berariazko irizpideak: Zenbakien bidezko balorazioa berdina denean, kontratuak adjudikatzeko orduan, langile ezgaituak

13.3. Criterios específicos para el desempate: Tendrán preferencia en la adjudicación de los contratos, en caso de valoración numérica

ESKU11bac3dc-cc8f-4df1-8430-705b246c67db

dituzten enpresek aurkeztutako proposamenek izango dute lehentasuna, baldin eta pertsona horien kopurua langile guztien % 2tik gorakoa bada eta proposamen horiek adjudikazioaren oinarri bezala erabiliko diren irizpideen ikuspuntutik abantailatsuena berdintzen badute. Enpresa lizitatzaile batzuen artean berdinketa gertatzen bada proposamenik onuragarrienari dagokionez, eta horiek guztiek plantillan desgaitasunen bat duten langileak badituzte araudian ezarritakoa baino proportzio handiagoan (% 2 baino gehiago), plantillan desgaitasunen bat duten langile finkoen ehuneko handiena duen lizitatzaileak izango du lehentasuna kontratua adjudikatzean. Hala ere berdinketak jarraitzen badu, prezio baxuena proposatu duen enpresa aukeratuko da; prezioa ere berdina bada, adjudikazioa zozketaz erabakiko da.

idéntica, las proposiciones presentadas por aquellas empresas que tengan en su plantilla un número de trabajadores o trabajadoras con discapacidad superior al 2 %, siempre que dichas proposiciones igualen en sus términos a las más ventajosas desde el punto de vista de los criterios que sirvan de base para la adjudicación. Si varias empresas licitadoras de las que hubieren empatado en cuanto a la proposición más ventajosa acreditan tener relación laboral con personas con discapacidad en un porcentaje superior al 2 %, tendrá preferencia en la adjudicación del contrato la empresa licitadora que disponga del mayor porcentaje de personas trabajadoras fijas con discapacidad en su plantilla. De persistir el empate, resultará seleccionada la empresa cuya proposición sea la de precio más bajo; si ambas tuviesen el mismo precio la adjudicación se decidirá mediante sorteo.

Irizpide horiek aplikatze aldera, lizitatzaileek irizpideok egiaztatu beharko dituzte; horretarako, hala badagokio, dagozkion lan kontratuak, Gizarte Segurantzako kotizazioaren agiriak eta zuzenbidean onartuta dauden eta irizpide sozial horiek egiaztatzen dituzten bestelako dokumentuak ere aurkeztuko dituzte.

A efectos de aplicación de estos criterios los licitadores deberán acreditarlos, en su caso, mediante los correspondientes contratos de trabajo y documentos de cotización a la Seguridad Social y cualquier otro documento admitido en derecho que acredite los criterios sociales anteriormente referidos.

Berdinketak ebazteko irizpideak egiaztatzeko dokumentazioa berdinketa gertatzen den unean aurkeztu beharko dute lizitatzaileek, eta ez aurretik; baldintzak betetzen ote diren zehazteko unea, edonola ere, proposamenak aurkezteko epearen amaiera izango da.

La documentación acreditativa de los criterios de desempate será aportada por las licitadoras en el momento en el que se produzca el empate, y no con carácter previo, si bien el momento decisivo para apreciar la concurrencia de los requisitos será el de finalización del plazo de presentación de las proposiciones.

Irizpide horiek aplikatze aldera, lizitatzaileek irizpideok egiaztatu beharko dituzte; horretarako, hala badagokio, dagozkion lan kontratuak, Gizarte Segurantzako kotizazioaren agiriak eta zuzenbidean onartuta dauden eta irizpide sozial horiek egiaztatzen dituzten bestelako dokumentuak ere aurkeztuko dituzte.

A efectos de aplicación de estos criterios los licitadores deberán acreditarlos, en su caso, mediante los correspondientes contratos de trabajo y documentos de cotización a la Seguridad Social y cualquier otro documento admitido en derecho que acredite los criterios sociales anteriormente referidos.

13.4. Esleipena arrazoituko da eta enpresa hautagai edo eskaintzaileei jakinaraziko zaie.

13.4. La adjudicación deberá ser motivada y se notificará a las empresas candidatas o licitadoras.

Jakinarazpena lizitazio elektronikoko plataforma bidez egingo da.

La notificación se hará a través de la plataforma de licitación electrónica.

Izapideak jakinarazteko, eskaintzaileek emandako

Para las notificaciones de trámite, se utilizará el

ESKU11bac3dc-cc8f-4df1-8430-705b246c67db

helbide elektronikoa erabiliko da.

correo electrónico aportado por los licitadores
.

14. OBRETAKO ADJUDIKAZIO KOEFIZIENTEA

14. COEFICIENTE DE ADJUDICACIÓN EN OBRAS

Ondorio horietarako, adjudikazioa abantailatsuentzat jotako proposamenari emateko ebazpena Administrazioak behin betiko finkatuko du adjudikazio koefizientea.

A estos efectos, en la resolución por la que se otorgue la adjudicación a la propuesta considerada más ventajosa, la Administración fijará definitivamente el coeficiente de adjudicación.

Adjudikazio koefizientea enpresa adjudikaziodunak proposatutako eskaintza ekonomikoan aipatutako prezioaren eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren arteko erlazioa izango da.

El coeficiente de adjudicación será el que resulte de la relación entre el precio señalado por la empresa adjudicataria en la oferta económica de su propuesta y el presupuesto base de licitación.

Lanak egiten diren bitartean indarrean egongo diren prezio unitarioak Administrazioak onartutako proiektuan agertzen direnak izango dira, eta horiei enpresa lizitatzaileak egindako eskaintza ekonomikotik ateratzen den adjudikazio koefizientea aplikatuko zaie.

Los precios unitarios que regirán durante la ejecución de los trabajos serán los que figuran en el proyecto aprobado por la Administración, afectados por el coeficiente de adjudicación resultante de la oferta económica realizada por la empresa licitadora.

III – KONTRATUA FORMALIZATZEA

III - FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO

15. KONTRATUA FORMALIZATZEA

15. FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO

15.1. Kontratua formalizazioarekin burutuko da, SPKLk 153. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

15.1. El Contrato se perfecciona con su formalización según lo establecido en el artículo 153 y siguientes de la LCSP.

15.2. Kontratua administrazio dokumentuan formalizatuko da eta zorrozki beteko ditu lizitazioaren baldintzak. Ildo horri eutsiz, dokumentu hori edozein erregistro publikora iristeko nahikoa titulu izango da. Hala eta guztiz ere, pertsona edo enpresa esleipendunak kontratua eskritura publiko bihurtzea eska dezake eta bere kontura izango dira horren ondorioz sortutako gastuak. Kontratua formalizatzen duen dokumentuan ez dira inolaz ere onartuko klausulak, esleipenaren baldintzak aldatzen badituzte.

15.2. El contrato deberá formalizarse en documento administrativo que se ajuste con exactitud a las condiciones de la licitación, constituyendo dicho documento título suficiente para acceder a cualquier registro público. No obstante, la persona o empresa adjudicataria podrá solicitar que el Contrato se eleve a escritura pública, corriendo de su cargo los correspondientes gastos. En ningún caso se podrán incluir en el documento en que se formalice el contrato cláusulas que impliquen alteración de los términos de la adjudicación.

15.3. SPKLk 44. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratuari kontratazioaren arloan errekurtso berezia jar dakiokeenez, enpresa eskaintzaile eta hautagaiei jakinarazpena bidaltzen zaienetik hamabost (15) egun baliodun igaro baino lehen ezingo da formalizatu.

15.3. Como el contrato es susceptible de recurso especial en materia de contratación conforme al artículo 44 de la LCSP, la formalización no podrá efectuarse antes de que transcurran quince (15) días hábiles desde que se remita la notificación a las empresas licitadoras y candidatas.

Kontratazio organoaren mendeko zerbitzuek errekerimendua jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita gehienez bost (5) egunetan kontratua

Los servicios dependientes del órgano de contratación requerirá a la persona o empresa

ESKU11bac3dc-cc8f-4df1-8430-705b246c67db

formalizatzeko deituko diote pertsona edo enpresa esleipendunari. Xede horrez, lehenik eta behin errekurtsoa jarri gabe aurreko paragrafoan aurreikusitako epeak igaro behar du, errekurtsoak kontratua formalizatzea eteten baitu. Modu berean arituko da errekurtsoa ebazteko organo eskudunak etenaldia altxatzen duenean.

adjudicataria para que formalice el Contrato en plazo no superior a cinco (5) días a contar desde el siguiente a aquel en que hubiera recibido el requerimiento, una vez transcurrido el plazo previsto en el párrafo anterior sin que se hubiera interpuesto recurso que lleve aparejada la suspensión de la formalización del contrato. De igual forma procederá cuando el órgano competente para la resolución del recurso hubiera levantado la suspensión.

15.4. Enpresa esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik adierazitako epearen barruan kontratua ez bada formalizatu, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren ehuneko 3ko zenbatekoa eskatuko zaio, BEZa barne, zehapen kontzeptupean eta lehenengo behin betiko bermearekin ordainduko da. Halakoetan, kontratua hurrengo eskaintzaileari esleituko zaio, eskaintzen sailkapen ordena kontuan hartuta.

15.4. Cuando por causas imputables a la empresa adjudicataria no se hubiese formalizado el Contrato dentro del plazo indicado, se le exigirá el importe del 3 por ciento del presupuesto base de licitación, IVA excluido, en concepto de penalidad, que se hará efectivo en primer lugar contra la garantía definitiva. En este caso, el contrato se adjudicará al siguiente licitador por el orden en que hubieran quedado clasificadas las ofertas.

Kontratua ez formalizatzeko arrazoiak administrazioari egozten bazaizkio, esleipendunari atzerapenak sortzen dizkion kalte-galerengatik kalte-ordaina emango zaio.

Si las causas de la no formalización fueren imputables a la administración, se indemnizará al adjudicatario de los daños y perjuicios que la demora le pudiera ocasionar.

Ezingo da kontratua gauzatzen hasi aldez aurretik formalizatu gabe.

No podrá iniciarse la ejecución del Contrato sin su previa formalización.

IV - GAUZATZEA

IV - EJECUCIÓN DEL CONTRATO

16. OBRA ZUZENDARITZA

16. DIRECCIÓN DE LAS OBRAS

16.1. Obrak San Markoseko Mankomunitatearen zuzendaritza, zaintza eta kontrolpean egingo dira, obren Zuzendari Fakultatiboa izendatuta. Horretarako, Mankomunitateak egokitzat jotzen dituen kanpoko laguntza teknikoak kontratatu ahal izango ditu.

16.1. Las obras se realizarán bajo la dirección, vigilancia y control de la Mancomunidad de San Marcos, que designará al Director Facultativo de las obras. La Mancomunidad podrá contratar para ello las asistencias técnicas externas que estime oportunas.

16.2. Obren Zuzendaritza Fakultatiboaren oharrek Proiektua edo Administrazio Baldintzen Agirien klausulak aldatu ezin badituzte ere, horiek interpretatu eta argitu ahal izango dituzte, eta obren kontratistak derrigorrez bete beharko ditu ohar horiek.

16.2. Las indicaciones de la Dirección Facultativa de las obras no podrán modificar el Proyecto o Pliego de Clausulas Administrativas, pero sí interpretarlas y aclararlas, siendo de obligado cumplimiento para el contratista de las obras.

16.3. Kontratistak obran bertan gordeko ditu eta Zuzendaritza Fakultatiboaren eskura une oro jartzeko moduan izango ditu “Aginduen liburua” eta “Azpikontratazioaren liburua”, indarreko legeriak xedatutakoarekin bat erabiliko dena.

16.3. El contratista estará obligado a conservar y tener a disposición de la Dirección Facultativa en todo momento y en la obra un ‘Libro de Órdenes’ y un “Libro de Subcontratación”, que se utilizará de acuerdo con lo dispuesto en la legislación vigente.

ESKU11bac3dc-cc8f-4df1-8430-705b246c67db

16.4. Obraren zuzendari fakultatiboak egokitzat jotzen dituen agindu, argibide eta jakinarazpenak, kontratistari eman nahi dizkionak, idatziz egingo dira, zuzendariak sinaduraren bidez baimena emanda. Jarraibideak ahoz ematen badira, ahalik eta epe laburrenean idatziz berretsi beharko dira, alderdientzat lotesleak izan daitezen.

16.4. Las órdenes, instrucciones y comunicaciones que el Director facultativo de la Obra estime oportuno dar al contratista se efectuarán por escrito, autorizándolas con su firma. Cuando las instrucciones fueren de carácter verbal, deberán ser ratificadas por escrito en el más breve plazo posible, para que sean vinculantes para las partes.

16.5. Zuzendaritza Fakultatiboak edozein unetan agindu ahal izango du kasuan-kasuan komenigarritzat jotzen dituen obrako materialen eta unitateen entseguak, probak eta azterketak egiaztatzeko, eta horretarako laborategia izendatu ahal izango du. Material eta obra-unitateak egiaztatzeko obraren Zuzendaritza Fakultatiboak eskatutako egiaztapen eta entseguen gastuak kontratistaren kontura izango dira.

16.5. La Dirección Facultativa podrá ordenar en cualquier momento que se verifiquen los ensayos, pruebas y análisis de materiales y unidades de obra que en cada caso juzgue conveniente, pudiendo designar el laboratorio. Son de cuenta del contratista los posibles gastos por verificación y ensayo de materiales y unidades de obras que sean requeridos por la Dirección Facultativa de la obra.

16.6. Era berean, adjudikaziodunak bete beharko ditu Mankomunitatearen eta obraren Zuzendaritza Fakultatiboaren aginduak, horien helburua obrak egikaritzea eta kokapen horretan egiten diren jardueren eguneroko kudeaketa bateragarri egitea bada-

16.6. Asimismo, el adjudicatario deberá acatar aquellas órdenes que provengan de la Mancomunidad y de la Dirección Facultativa de la obra, cuyo objeto sea el compatibilizar la ejecución de las obras con la gestión diaria de las actuaciones que se desarrollan en el emplazamiento.

16.7. San Markoseko Mankomunitateak gordeko du agregakin birziklatuen jatorria aukeratzeko lehentasunezko eskubidea (horrelakoak erabili behar izanez gero), eta kontratistak ez du eskubiderik izango kalte-ordainik jasotzeko edota kosturen bat ordaintzerik eskatzeko.

16.7. La Mancomunidad de San Marcos se reserva el derecho preferencial de elegir, si procediera su uso, la procedencia de los áridos reciclados, sin que suponga derecho de indemnización o pago de coste alguno al contratista.

17. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratuaren arduradunaren ahalmenak Zuzendari Fakultatiboak beteko ditu, SPKLren 237. artikulutik 246. artikulura xedatutakoari jarraikiz.

17. RESPONSABLE DEL CONTRATO

Las facultades del responsable del contrato serán ejercidas por el Director Facultativo conforme con lo dispuesto en los artículos 237 a 246 de la LCSP.

18. ENPRESA KONTRATISTAREN BALDINTZAK ETA BETEBEHARRAK

18.1. BALDINTZA OROKORRAK

1. Kontratuaren adjudikaziodun izango den enpresak edo aldi baterako enpresa-elkarteak San Markoseko Mankomunitateari proiektatutako obrak kontratuan aurreikusitako epeetan egikaritu eta entregatu beharko dizkio.

18. CONDICIONES Y OBLIGACIONES DE LA EMPRESA CONTRATISTA

18.1. CONDICIONES GENERALES

1. La empresa o Unión Temporal de Empresas adjudicataria del contrato quedará obligada a ejecutar y entregar a la Mancomunidad de San Marcos las obras proyectadas en los plazos contractuales previstos.

2. Indarrean dagoen obra planean (kontratistak

2. La superación de los plazos fijados en el plan

ESKU11bac3dc-cc8f-4df1-8430-705b246c67db

proposatu, eta Zuzendaritza Fakultatiboak eta Mankomunitateak onartutakoan) ezarritako epeak gainditzen badira, kontratistak bere gain hartu beharko du, erreklamatzeko eskubiderik gabe, egun gehigarrien kostua, San Markoseko Mankomunitateak Aholkularitza eta obren Zuzendaritza Teknikoaren kontratuaren adjudikaziodunari ordaindu beharko diona, aipatu kontratuan agertzen den lanetako batek indarrean dagoen obra planean finkatutako epea gainditzen badu.

de obra vigente (propuesto por el contratista y aprobado por la Dirección Facultativa y la Mancomunidad) conllevará que el contratista deberá asumir sin derecho a reclamar el sobrecosto que suponga a la mancomunidad de San Marcos el pago de días adicionales al adjudicatario del contrato de Consultoría y Dirección Técnica de las obras como consecuencia de cualquiera de las labores comprendidas en el citado contrato que superen los plazos fijados en el plan de obra vigente.

Indarrean dagoen obra planean (kontratistak proposatu, eta Zuzendaritza Fakultatiboak eta Mankomunitateak onartutakoan) ezarritako epeak gainditzen badira, kontratistak bere gain hartu beharko du egun gehigarrien kostua, San Markoseko Mankomunitateak obren Koordinaziorako eta Segurtasun eta Osasunerako kontratuaren adjudikaziodunari ordaindu beharko diona.

La superación de los plazos fijados en el plan de obra vigente (propuesto por el contratista y aprobado por la Dirección Facultativa y la Mancomunidad) conllevará que el contratista deberá asumir el sobrecosto que suponga a la mancomunidad de San Marcos el pago de días adicionales al adjudicatario del contrato de Coordinación y Seguridad y Salud de las obras.

3. Obrak onartutako Proiektua eta baldintza agiriak, orokorrean aplikatu behar den araudia eta, hala badagokio, kontratatutako lanen berezko arau teknikoak zorrotz betez egikaritu beharko dira, obraren zuzendariak, interpretazio teknikoa egin ondoren, kontratistari eman ahal dizkion jarraibideak kontuan hartuta. Jarraibide horiek ahoz ematen badira, ahalik eta epe laburrenean idatziz berretsi beharko dira, alderdientzat lotesleak izan daitezen.

3. Las obras deberán ejecutarse con estricta sujeción al Proyecto y pliegos aprobados, a la normativa de general aplicación y, en todo caso, a las reglas técnicas propias de la naturaleza de los trabajos contratados, y conforme a las instrucciones, que en interpretación técnica de éste diere al contratista el director de la obra. Cuando dichas instrucciones fueren de carácter verbal, deberán ser ratificadas por escrito en el más breve plazo posible, para que sean vinculantes para las partes.

4. Kontratistak arrisku eta menturara jardun beharko du kontratua egikaritzean, SPKLren 239. artikuluan ezarritakoa alde batera utzi gabe.

4. La ejecución del contrato se realizará a riesgo y ventura del contratista, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 239 de la LCSP.

5. Kontratista obrak behar bezala amaitu arte Proiektuan aurreikusitako konponbideak zuzen garatzeaz eta gauzatzeaz arduratuko da.

5. El contratista será responsable del correcto desarrollo y ejecución de las soluciones previstas en el Proyecto hasta la terminación satisfactoria de las obras.

6. Enpresa kontratista izango da garatzen dituen lanen eta ematen dituen prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule, baita kontratua egikaritzean izandako omisioak, errakuntzak, metodo desegokiak zein ondorio okerrak direla eta San Markoseko Mankomunitateari zein hirugarrenei sortutako ondorioen erantzule ere.

6. La empresa contratista será responsable de la calidad técnica de los trabajos que desarrolle y de las prestaciones y servicios realizados, así como de las consecuencias que se deduzcan para la Mancomunidad de San Marcos o para terceros de las omisiones, errores, métodos inadecuados o conclusiones incorrectas en la ejecución del contrato.

ESKU11bac3dc-cc8f-4df1-8430-705b246c67db

7. Kontratistari edo bere ardurapeko pertsonei egozteko moduko ekintza edo omisioen ondorioz kontratua ondo joatea arriskuan jartzen denean, Administrazioak kontratua zuzen egikaritzeko edo ordena berrezartzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzeko eskatu ahal izango du.

7. Cuando por actos u omisiones imputables al contratista o a personas de él dependientes se comprometa la buena marcha del contrato, la Administración podrá exigir la adopción de las medidas que estime necesarias para conseguir o restablecer el buen orden en la ejecución del mismo.

8. Enpresa kontratistak kontratuaren emaitza egoki baliatzeko informazio osagarria eta beharrezko laguntza teknikoa emateko konpromisoa hartzen du (agiriak eta nolanahiko argibideak).

8. La empresa contratista se compromete a facilitar la información complementaria y asistencia técnica necesaria para la perfecta utilización del resultado del contrato (documentos y todo tipo de información).

9. Obrek iraun bitartean eta bermealdia amaitu arte, kontratista da eraikuntzan agertzen diren akatsen erantzule.

9. Durante el desarrollo de las obras y hasta que se cumpla el plazo de garantía, el contratista es responsable de los defectos que en la construcción puedan advertirse.

10. San Markoseko Mankomunitateak izendatutako zuzendari fakultatiboaren iritziz, obraren zati bat gaizki egina balego, kontratistak berriz egin beharko du, inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe, egoera hori obra hartu eta gero hauteman arren.

10. Si a juicio del facultativo director designado por la mancomunidad de San Marcos, hubiera alguna parte de la obra ejecutada deficientemente, el contratista deberá rehacerla sin derecho a indemnización de ningún género, aunque se hubiera apreciado después de la recepción.

Zuzendaritzaren arabera, obra unitate akastunak edo kontratuaren baldintzak zorrotz betetzen ez dituztenak onargarriak badira, administrazioari onartzea proposa diezaioke, prezioa jaitsita. Halakoetan, kontratistak onartu beharko ditu administrazioak finkatu dizkion prezio merkeagoak, unitate akastunak kontratuaren baldintzen arabera bere kontura eraitsi eta berriz eraikitzea erabakitzen duenean izan ezik.

Si la dirección estima que las unidades de obra defectuosas o que no cumplen estrictamente las condiciones del contrato son, sin embargo, admisibles, puede proponer a la administración su aceptación, con la consiguiente rebaja en los precios. El contratista, en tal caso, queda obligado a aceptar los precios rebajados fijados por la Administración, salvo que prefiera demoler y reconstruir las unidades defectuosas por su cuenta y con arreglo a las condiciones del contrato.

11. Kontratistaren kontura eta kargura izango dira gestioak eta izapideak, tasa eta eskubideen ordainketak, baita –instalazioen funtzionamenduko alta eta baimena, sare eta zerbitzuetako lotuneak, behin-behineko eta behin betiko harguneak eta, oro har, horrelako instalazioen behar bezala funtzionatu eta legeztatzeko beharrezkoa den guztia lortzeko– erakunde eskudunetan edo enpresa titularretan aurkeztu beharreko proiektuak idaztea ere. Gestio horiei dagokion dokumentazioa (jatorrizko bertsioan) kontratuaren Zuzendaritza Fakultatiboari entregatuko zaio, harrera akta formalizatu aurretik.

11. Serán de cuenta y cargo del contratista la realización de las gestiones y trámites, pagos de tasas y derechos, así como la redacción de los proyectos que haya que presentar en los organismos competentes o empresas titulares, a efectos de obtener el alta y permiso de funcionamiento de las instalaciones, los enganches a redes y servicios, acometidas provisionales y definitivas, y en general todo lo necesario para el funcionamiento adecuado y legalizado de las obras que incluyan este tipo de instalaciones. La documentación correspondiente a estas gestiones se entregará en original a la Dirección facultativa del contrato antes de

ESKU11bac3dc-cc8f-4df1-8430-705b246c67db

formalizar el acta de recepción.

Obrak egikaritzeko behar diren hornidurak kontratistaren kontura izango dira.

Los distintos suministros que se precisen para la ejecución de las obras serán de cuenta del contratista.

Kontratista arduratuko da aldi baterako instalazioei baja emateaz eta aipatu izapidea egiaztatzeko dokumentazioa aurkezteaz.

El contratista deberá dar de baja las instalaciones temporales y presentar documanetación acreditativa de la citada tramitación.

12. Kontratistaren betebeharra izango da obraren zuzendaritzaren eskura klimatizazioa duen bulego bat jartzea; lanak egiten diren tokian lanak zuzentzeko berezko funtzioak betetzeko azalera egoki eta nahikoa izan beharko du bulegoak, eta honako hauek izango ditu: gelak bereizteko panelak, mahaiak, aulkiak, apalak, telefonoa, faxa, energia elektrikorako harguneak eta beharrezkoak diren zerbitzu sanitarioak.

12. El contratista tiene la obligación de poner a disposición de la dirección de obra una oficina climatizada, de una superficie adecuada y suficiente para el desarrollo en la obra de las funciones propias de aquella, con paneles de división en despachos, mesas, sillas y estanterías, además de teléfono y fax, tomas de energía eléctrica y de los servicios sanitarios necesarios.

13. Kontratistak, obrak amaitutakoan edo lehenago, ahal den heinean, bere kabuz kenduko ditu eraikin, instalazio eta obra osagarri edo behin-behineko guztiak, baita tresnak, materialak eta abarrak ere. Horiek guztiak kenduta, zeuden tokiak garbituko ditu, kasu guztietan, txukun eta obra hondakinik gabe uzteko.

13. El contratista, al finalizar las obras o con antelación en la medida que sea posible, retirará por su cuenta todas las edificaciones, instalaciones y obras auxiliares o provisionales así como las herramientas, materiales etc. Una vez retiradas, procederá a la limpieza de los lugares ocupados por las mismas dejando éstos, en todo caso, limpios y libres de escombros.

14. Kontratistak behin-behineko instalazioek eta obrek kaltetutako gainazalak tratatuko ditu, lehen zeuden egoerara leheneratzeko. Horrela jokatu ezean, Obra Zuzendaritzak, aurrez abisatuta, aipatu lanak egiteko agindu ahal izango du, kontrataren kargura.

14. El contratista procederá al tratamiento de las superficies afectadas por las instalaciones y obras provisionales restituyéndolas a su estado original. Si no procediese así, la Dirección de Obra, previo aviso, podrá ordenar que se ejecuten las citadas labores con cargo a la contrata.

15. Jarraian, soilik orientabide moduan, kontratistak kontuan hartu behar dituen alde batzuk aipatzen dira:

- Topografia osagarria eta zuinketa.
- Proiektuko konponbide teknikoak eremuaren benetako baldintzetara egokitzeko maila.
- Obrak egiteko behar diren edo komeni diren behin-behineko sarbide, pasabide eta trafiko desbiderapenak, horretan erabili beharreko seinaleak, tresnak eta semaforoak barne.
- San Markoseko Mankomunitatearen ekimenez, obra kontratuko baldintzen arabera

15. Con carácter meramente orientativo se señalan a continuación algunos de los aspectos a atender, en su caso, por el contratista a su cuenta:

- Topografía complementaria y de replanteo.
- Adecuación de las soluciones técnicas del Proyecto a las condiciones reales del terreno.
- Accesos y pasos provisionales y desvíos de tráfico necesarios o convenientes para la ejecución de las obras, con la señalización y dispositivos, incluso semafóricos, adecuados.
- Cuantas obras complementarias a iniciativa de la mancomunidad de San Marcos se

ESKU11bac3dc-cc8f-4df1-8430-705b246c67db

eta indarrean dagoen legediaren testuinguruan, kontratista adjudikaziodunari eska dakizkiokeen obra osagarri guztiak, hala nola, bideak berregitea edo egokitzea, eta argien edo beste zerbitzu batzuen azpiegiturako obra zibila.

puedan encomendar al contratista adjudicatario con arreglo a las condiciones contractuales de la obra y en el contexto de la legislación vigente, tales como reposición o acondicionamiento de accesos y, en su caso, obra civil de infraestructura de iluminación u otros servicios.

16. Kontratistak ekipamendu eta giza baliabide egokiak erabili beharko ditu lanak egikaritzeko, eta, une oro, lan eta espezialitate desberdinen berariazko beharrei erantzun beharko die.

16. El contratista deberá ejecutar los trabajos con el equipo y medios personales adecuados, respondiendo en todo momento a las necesidades propias de las distintas labores y especialidades.

17. Obrak egiten diren bitartean, kontratistak ingurumen-inpaktu eta -zaharberritzearen arloan aditu prestatu bat (gutxienez) izango du, arloarekin zerikusia duten obra unitateak garatzeko. Izan ere, horiek adituek egingo dituzte: zarataren kontrako gailuak, neurri zuzentzaileak eta abar.

17. Durante el desarrollo de las obras el contratista debe disponer, al menos, de un profesional cualificado en materia de impacto y restauración medioambiental que se ocupe del desarrollo de las unidades de obra relacionadas con esta materia, las cuales habrán de ser realizadas por especialistas (dispositivos anti-ruido, medidas correctoras, etc.).

18. Kontratistak topografian teknikari bat jarriko du kontratua egikaritzeko, eskatzen zaizkion lanak egiteko nahikoa titulazio duena.

18. El contratista pondrá a disposición del contrato un técnico en topografía con titulación suficiente para la realización de todos los trabajos que así lo requieran.

19. Eraikuntzak iraun bitartean, kontratistak material guztiak eta obra bera narriadura eta kalte guztietatik babestu beharko ditu eta material sukoi guztiak gorde eta suteen kontra babestuko ditu.

19. El contratista deberá proteger todos los materiales y la propia obra contra todo deterioro y daño durante el periodo de construcción y deberá almacenar y proteger contra incendios todos los materiales inflamables.

20. Kontratistak behar adina neurri hartuko ditu, hala behar izanez gero, dela erregaien, dela aglutinatzaileen, dela koipeen, dela bestelako edozein material kaltegarriren ondoriozko uren kutsadura saihesteko.

20. El contratista adoptará las medidas necesarias para evitar, en su caso, la contaminación de las aguas por efecto de los combustibles, ligantes, aceites o cualquier otro material perjudicial.

21. Kontratistak behar bezain txukun izan behar ditu obra barruko nahiz kanpoko gune guztiak, bereziki, zabortegira sartzeko errepidea.

21. Deberá conservar en perfecto estado de limpieza todos los espacios interiores y exteriores a la obra, con especial atención a la carretera de acceso al vertedero.

22. Kontratista behartuta dago bide publikoak libre eta egoera onean uztera, eta beharrezko lan guztiak egin behar ditu oinezkoak eta ibilgailuak obrak irauten bitartean arazorik gabe ibil daitezen. Obren eragina jasaten duten zerbitzuei dagozkien jarduketak Obra Zuzendaritzaren jarraibideen arabera egingo dira,

22. El contratista queda obligado a dejar libres y en buen estado las vías públicas, debiendo realizar las obras necesarias para dejar tránsito a peatones y vehículos durante la ejecución de las obras. Las actuaciones correspondientes a servicios afectados por las obras se realizarán

ESKU11bac3dc-cc8f-4df1-8430-705b246c67db

trafikoaren afekzioak ahalik eta txikienak izan daitezen eta erabiltzaileen bide segurtasuna berma dadin. Bereziki, obrak egin bitartean erabiltzen diren bide publikoak erabilera baldintza egokitan mantendu beharko dira, bideen garbitasuna eta erabiltzaileen segurtasuna zainduta.

siguiendo las instrucciones de la Dirección de Obra de modo que se reduzcan al mínimo las afecciones al tráfico y se garantice la seguridad vial de los usuarios. En particular los caminos públicos que sean utilizados durante las obras deberán mantenerse en todo momento en condiciones de uso correctas, cuidándose especialmente su limpieza y la seguridad de los usuarios.

23. Kontratistak, kontratua burutzeko epe osoan (luzapenak barne) eta bermealdian (gehikuntzak barne), **aseguru kontratu bat eduki beharko du, kontratua burutzetik hirugarrenei edo obrari eragin dakizkiekeen kalteen erantzukizuna estaltzeko**; aseguruak baldintza agiri honen klausuletan aipatzen diren gutxieneko estaldurak izango ditu, besteak beste berariaz adierazita aseguratuak, gutxieneko estaldurak, bermatutako zenbatekoak eta epeak; halaber, azalaren 20. puntuan ezarritako zenbatekoak bermatuko ditu aseguruak. Hori guztia kontratua sinatu eta gehienez hilabete batean egiaztatu beharko du kontratistak, jatorrizko poliza eta dagozkion primen ordainagiriak aurkeztuz edo aseguru etxearen ziurtagiri egokiak aurkeztuz. Parragrafo honetan zehaztutakoa kontratua egikaritzeko baldintza berezia da, eta hala jaso da azalaren 2.2 atalean. Horiek ez betetzearen ondorioak plegu honen 20. atalean daude aurreikusita.

23. El contratista deberá disponer, durante el periodo total de duración de la ejecución del contrato (prórrogas incluidas) y del correspondiente plazo de garantía (ampliaciones incluidas), de un **contrato de seguro que cubra su responsabilidad por daños a terceros así como el correspondiente de daños a la obra,** con las coberturas mínimas a que se hace referencia en las cláusulas de este pliego, con indicación expresa, entre otros aspectos, de los asegurados, coberturas mínimas e importes garantizados, así como del plazo, y por las sumas aseguradas que se establecen en el punto 20 del cuadro de características del presente pliego, lo que deberá acreditar en el plazo máximo de un mes contado desde la firma del contrato, mediante la presentación bien de la póliza original y de los recibos acreditativos del pago de la primas correspondientes, bien de los correspondientes certificados de la entidad aseguradora. El cumplimiento de lo previsto en este párrafo tiene carácter de condición especial de ejecución del contrato y así queda previsto en el apartado 2.2 de la carátula. Las consecuencias de su incumplimiento vienen previstas en el apartado 20 de este pliego.

Nolanahi ere, adjudikaziodunak ordaindu beharko ditu dagokion frankiziaren (edo frankizien) zenbatekoa eta aseguru polizetan ezarrita egon daitezkeen mugak gainditzen dituzten kalte-galerak, baita aseguru polizetan estali gabeko ondasunei eta arriskuei lotutakoak ere.

En todo caso serán soportados por el adjudicatario los daños y perjuicios en la cuantía de la/s correspondientes franquicia/s y en lo que superen los límites que se establezcan en las distintas pólizas de seguro; así como en los bienes y riesgos no cubiertos en las mismas.

24. Kontratistak isilik gorde behar ditu kontratuaren xedearekin lotura duten eta kontratua egin duelako jakin dituen datu eta aurrekari guztiak, edonorentzat jakinak edo nabariak ez badira (SPKLren 133. artikulua). Beraz, inori ezin dio eman kontratuaren xedeari buruzko informaziorik, ez kontratuaren indarraldian, ez kontratua amaitu eta gero, ezta helburu horrekin obrara sartzen utzi ere, baldin eta

